



DBHn promozioa eta titulazioa

2016-17 ikasturtea

2016-17 ikasturtean **DBH**n aplikatuko da
[236/2015ko OH dekretua](#)

VII kapituluan **promozionatzeko irizpideak** jasotzen dira, baina DBH titulua lortzeko baldintzarik ez dira zehazten.

Ebaluazioa arautuko duen gure dekretua agertu bitartean*, **DBH titulazioari buruz** indarrean dagoena hauxe da:

[Real Decreto 562/2017, de 2 de junio](#)

* [ikasturte amaierako jarraibideetan](#) dekretuaren aurrerapena dator 1. eranskinean.

Mailaz igotzeko erabakia

*“Etapako maila batetik bestera igotzeko erabakiak ikasleen **irakasle guztien artean** hartuko dira, kontuan hartuz zenbateraino eskuratu diren **etapako helburuak eta konpetentziak.**”*

[EHAA, 2016ko urtarrilaren 15a](#), 52. art

*“Irakasle-taldeko kideen artean **adostasunik ez balego**, ikasle batek **maila berean beste ikasturte bat** jarraitu behar duela erabakitzeko, gutxienez, ikaslearen ikaste-prozesuan parte hartzen duten **irakasleen bi herenak adostu beharko du.**”*

[Ikasturte amaierako jarraibideak, 1. eranskina](#)

DBHn maila errepikatzea



Errepikatzea **salbuespeneko neurria da**, eta **laguntza-neurri arruntak agortu ondoren** hartuko da.

DBHn behin bakarrik errepikatu ahal da maila bera*, eta **gehienez bi aldiz etapa osoan**. Errepikatzen den bigarren aldia DBH3an edo 4ean gertatzen bada, **19 urte** betetzen dituen ikasturtearen amaierara arte gera daiteke ikaslea eskolan.

*bi aldiz errepikatu ahal da DBH 4, betiere etaparen aurreko mailarik errepikatu ez bada. [EHAA, 2016ko urtarrilaren 15a](#), 45. art

DBHn errepikatzea

Orokorrean ikasleek maila **errepikatuko dute ebaluazio negatiboa dutenean**

 **3 ikasgaietan*** edo gehiagotan

 **2 ikasgai horietan:**

- Gaztelania **eta** Matematika edo
- Euskara **eta** Matematikan

** maila desberdinetan izen bera duten ikasgaiak ikasgai desberdintzat hartuko dira*

DBHn errepikatzeko **salbuespenak**

2 ikasgai horiek (*Eus edo Gazte **eta** Mate*) suspendituta edo

3 ikasgai (horietako bi *Gazte edo Eus **eta** Mate **ez denean***)

suspendituta duten ikasleek salbuespenez **mailaz igoko dute baldintza hauekin:**

- irakasleen iritziz*, ebaluazio negatiboa duten ikasgaiak **oztopo ez direnean** hurrengo maila arrakastaz gauzatzeko, berreskuratzeko aukerak dituenen eta mailaz igotzea ona izango denean bilakaera akademikorako
- orientazio aholkuan proposaturiko **arreta-neurriak** aplikatzea

[EHAA, 2016ko urtarrilaren 15a](#), 52. art

**Salbuespen kasuetan irakasleen erabakia Aktetan justifikatzea komeni da, bai salbuespena aplikatzen denean eta bai errepikatzea erabakitzen denean ere*

DBH titulazioa 2017an

2017an DBH titulua lortzeko **ikasgai guztiak** gainditu behar dira edo gehienez **bi gainditu gabe** utzi, beti ere bi horiek **ez badira batera**

Gaztelania eta Matematika

edo

Euskara eta Matematika

eta irakasle taldearen iritziz ikasleak oinarrizko konpetentziak eta etapako helburuak lortu baditu.

2017an DBH titulua **bakarra** izango da, orain arte bezala, eta bai batxilergoko zein Lanbide Heziketako ikasketak jarraitzeko aukera emango du.



Promozioa

Curriculum Aniztasuneko ikasleak ikasturte bakoitzaren buruan izango dira ebaluatuak.

Bi ikasturteko programetan, **nahitaezkoa** izango da lehenengo kurtsoetik (DBH 3) bigarrenera (DBH 4) igarotzea.

Titulazioa

Dena gainditu dutenek DBH titulua lortuko dute.

Bi esparruak gaindituta **arlo batean edo bitan** ebaluazio negatiboa dutenek **titulua eskuratzeko aukera** izango dute, baldin eta irakasle taldearen iritziz ikasleak oinarrizko kompetentziak eta etapako helburuak lortu badituzte.

DBHn mailaz igotzea eta titulazioa 2016-17 ikasturtean

maila	gainditu gabekoak	erabakia
<p>DBH 1</p> <p>DBH 2</p> <p>DBH 3</p> <p>DC</p>	<p>2 suspentso</p> <p>ez badira G/E + Ma</p> <p>Gaztelania + Mate</p> <p>Euskara + Mate</p> <p>3 suspentso</p> <p>horietako bi ez badira G/E + Ma</p> <p>horietako bi G/E + Ma</p> <p>bi urteko programak</p>	<p>mailaz igarotzen du</p> <p>irakasleen erabakia</p> <p>irakasleen erabakia</p> <p>irakasleen erabakia</p> <p>errepikatu</p> <p>mailaz igarotzen du</p> <p>edo beste aukerak aztertu (17 urte)</p>
<p>DBH 4</p> <p>DC</p>	<p>dena gaindituta</p> <p>2, ez badira G/E + Ma</p> <p>2, G/E + Ma</p> <p>3 suspendituta</p> <p>dena gaindituta</p> <p>bi esparruak gaindituta + 1/2 arlo suspendituta</p>	<p>titulazioa</p> <p>irakasleen erabakia</p> <p>titulurik ez</p> <p>titulurik ez</p> <p>titulazioa</p> <p>irakasleen erabakia</p>